

Nepaleko lurrikaretako batek Everest mugitu du

2015EKO APIRILAREN 25EAN Nepalen gertatu zen lurrikarak, herrialdea hankaz gora jartzeaz gain, lekuz aldatu ditu gauzak. Hala, Txinan lurrikarak aztertzen dituen erakunde baten arabera, Everest hiru zentimetro mugitu da hego-mendebalderantz. Datu hori ezagututa baten batek pentsatuko du horrenbestez GPS koordena- tuak aldatu beharko direla, eta



SHRIMPO1967-CC BY SA

hala da, baina esan beharra dago Everest, beraren azpian dauden xafla tektonikoen mugimenduaren eraginez, etengabe ari dela mugitzen.

Urtero, munduko mendi altuena lau zentimetro higitzen da ipar-ekialde- ra. Hortaz, azken hamar urteotan 40 zentimetro mugitu da. Lurrikarak mugimendu hori atzeratu baino ez du egin, hau da, orain urtebete zuen posiziora itzularazi du, gutxi gorabehera.

Baina Everest behetik gora ere mugitzen ari da, hau da, altxatzen. Horizontalean baino mugimendu txikiagoa du; hala ere, urtero 0,3 zentimetro handitzen dela kalkulatu da. Beraz, haren altuera 8.848 metrokoa dela esaten dugunean badakigu zifra ez dela zehatza, hitzartutako garaiera ofiziala baizik. Eta hala ere, txinatarren arabera Everest hori baino lau metro txikiagoa da, tontorrean duen lau metroko izotz geruza kendu behar baitzaio. ■

Fukushiman lanak atzeratzen



GERO ETA INFORMAZIO GUTXIAGO hel- tzen zaigu Fukushimako zentral nuklearraren egoeraz. Berriki, hainbat kazetariri inguruko menditxo batetik zentrala ikusteko aukera eman diete; aldi berean, TEPCO enpresa kudea- tzaileko teknikarien azalpenak jaso dituzte.

Kazetariei emandako informazioa- ren arabera, zentralean 10.000 langile- tik gora ari dira garbiketa eta kontrol

lanetan. Sei gunetako batean txapela edo estalkia jarri nahian dabilta; ete- nik gabe gune horietako bihotzetara ura botatzen dute, baina ez dago garbi norantz joaten den ur hori. Bestalde, aurreikusita zegoen 2017rako gune bateko erregaia ateratzea, baina prozesu hori gutxienez hiru urtez atzeratu- ko dute. “Ez dugu teknologiarik horretarako”, argudiatu du TEPCOK. ■

‘Philae’ espazio-zunda, lanean berriro

Ekainaren 13an 67P kometan lurrartutako *Philae* zundak jar- duera seinalea eman zuenetik, etenik gabe izan dira harrema- nak haren eta Lurraren artean. Urte erdi bat isilik eman ondo- ren, badirudi datozen lau hilabe- tetan zientzialariak datuak bil- tzeke moduan izango direla.

ttiki.com/340195
(Frantsesez)

Mikro-robot bigunak

Orain arte garatutako robotak gizakiaren eskalan aritzekoak izan dira, batez ere industrian. Baina industria muga berriak gaiztuzten ari da. Iowako Uni- bertsitatean (AEB), esaterako, medikuntzan oso erabilgarria izan daitekeen mikro-garro bat garatzea lortu dute.

ttiki.com/340196
(Euskaraz)

Egunero 100 gramo txokolate jateak onura ugari

Inglaterra Norfolko hirian 21.000 pertsonarekin azterketa egin ostean, ondorio hauek lortu dituzte: egunero 100 gramo txo- kolate jateak %11 jaisten du gai- xotasun kardiobaskularrak izate- ko arriskua, eta %9 ospitaleratze kopurua. Izan ere, mota horretako gaitzen batengatik hiltzeko arriskua %25 gutxitzen du txo- kolate hartzeak.

ttiki.com/340197
(Gaztelaniaz)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak



www.iametza.com
T.943 37 67 16